

Arrasate

P R E S S

1998ko
Ekainak 12
411. zenb.



Unibertsitatean sartzeko azterketa

IKUSPEGIA: ANDONI URIBETXEARRIA • ZALDIBARKO FUTBITOA: TXAPELDUNAK
 EUREN IKUSPUNTUTIK: OSKAR ELIZBURU • DIRUAREN HOTSA: MONDRAGON HOTELA



GASTON Y DANIELA
Tapizeria • Mokatak Alfonbrak



Alfonbra eta
oihalez gain,
haur eta
gaztetxoentzako
altzari sail berria
aurkituko duzu!

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 943 - 76 07 37

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK

LOGELETAN MAISUAK

Eta orain 2. solairua!
Saloi eta sofa erakusketa

48 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Dena ETXEMOBELen.
Batetik, kalitate eta diseinurik handieneko logelak,
berme osoarekin.
Bestetik, logela merkeen artean,
merkeenak.

**BENETAN
HARRIGARRIA!**

**LARUNBAT ARRATSALDEETAN
ZABALIK!**

Araba Etorbidea, 5 • Eskatu Pabilioia • ARRASATE • Tel./Faxa: 943 - 79 41 82

Bidezko merkataritzaren bidean

1964a zen. Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Lehenengo Konferentzian ezarri zen lehenengo aldiz esaldi hau: "Trade, Not Aide", hau da, "Merkataritza, Ez Laguntza". Beronen helburua zen herri garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko zuzentasunezko merkataritza harremanak aldarrikatzea.



Andoni Uribetxebarria

Bost urte geroago, Holandan ireki zen elkartasunean oinarritutako lehenengo denda. Harreman zuzenak zituzten (bitartekaririk gabe) garapen bidean dauden herrialdeetako kooperatibekin. Bidezko Merkataritzaren hasiera izan zen, mugimendu handi baten hasiera, poliki-poliki Europa osora zabaldu dena.

Gaur egun Europan hauetako 3.000 denda daude, 45.000 salmenta gune, 100 erakunde

"Erantzukizunez erosi behar dugu"

salmenta mota hau bultzatzen, 50.000 borondatezko, 800 produktu baino gehiago banatzen dituztenak.

Merkataritza mota honek Hirugarren Munduko hainbat herrialderekin harreman ekonomiko berria ezartzeko ahalegina dakar. Garapen bidean dauden herrialdeetan kalitatezko produktu ugari ekoizten dira, baina askotan ezin ditugu erosi, merkataritza sare egokirik ezean, ezin direlako guregana heldu, eta heltzen diren gehienetan irabaziaren zatirik handiena bitartekariak hartzen dutelako.

Hirugarren munduan ekoiztu eta kontsumitzen ditugun produktuak sarritan hango langileek sufritzen duten zapalketa eta lan baldintza eskaxen fruitu dira.

Erantzukizunez egindako kontsumoa

Bidezko Merkataritzak salerosketa egiteko era berriak ezarri nahi

ditu, non harreman ekonomikoak alde guztientzat mesedegarri izan daitezkeen. Horretan zeregin handia dugu kontsumitzaileok, gure erosketa bakoitza "erantzukizunezko kontsumoa" bihurtu dadin. Bidezko Merkataritzak partehartze zuzena izateko aukera ematen digu pobreziaren menpe dauden gizakume, emakume eta umeen baldintzak hobetzeko. Kontsumo erantzukizunez eginez, jakin dezakezu erosten ditugun produktuak non ekoiztu diren, zein lan egoeratan (gaztetxoena lana galerazita dago, emakumei soldata berdina eta duina...), edo natura errespetatuz egin ote diren.

Bidezko Merkataritza egiten duten dendek zuzenean erosten dizkiete jakiak, artisau lanak eta ehunlanak garapen bidean dauden kooperatibei eta jatorrizko komunitateei, beti ere arestian aipatutako baldintzak betetzen dituztenean.

Azken batean, Bidezko Merkataritza Ipar eta Hegoaren arteko elkartasun eraginkor baterako bidea da. ■

"Mondragon Hotela ez dator Arrasate Hotelaren kontra. Haren osagarri izango da. Arrasate Hotela beti egoten da beteta. Guk ez diogu jenderik kenduko".

Ana Bujanda

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO Arrasate
Komunikabideak, Oñateko kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcosi, Naiara Gorroño. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo Arantzazu Lagunilla. (Tel.: 77 08 15) **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 79 02 26) **Disenatzailea:** Txos Azumendi. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreteta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arribu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarra, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kofi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreira. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-ordainak:** 1124/85. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñate).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Laso.

Arrasateko Udalerriaren laguntza
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza
Eusko Jaurlaritzako Kulturako Sailaren laguntza

%9,5

langabezia tasa Arrasaten

Euskal Estatistika Institutuak jakitera eman dituen datuen arabera, Arrasaten 1.585 langabe daude. Iaztik hona, langabeziak %17,8 egin du behera gure artean. Gainera, Arrasate-Deba Garaia da Gipuzkoako lurraldeetan langabezia gutxien duen lurraldea: %9,5.

ITURRI ONETIK

Euskaltel eta Arrasate

Urte honen bukaeran Arrasateko hainbat jende telebista ikusi ahal izango du Euskaltelen bidez. Hori adierazi zuten Arrasate Komunikabideak bisitatzen izan ziren Euskalteleko bi goikarguk.

Kable operadore gisa lehenengo hiriburuetan hasiko da Euskaltel, jende gehiena eta dirua, beraz, han dardelako, baina Arrasatera laster etorriko direla esan zuten. Hiru urtean Arrasateko erdia zerbitzatzeko moduan egongo liriteke, bost urtean %80 eta zazpi urte barru herri osoa. Horretarako kablea sartu beharko litzateke herri osoan zehar. Horrek esan nahi du kaleak berriro jaso beharko direla, kablea etxeetara eramateko.

EZ GIZA ALARMARIK, EZ ARDURAGABEKERIARIK

Egunkarietan azkenengo egunetan Eguzki Dorreko fatxadaren gainezaduran agertu den brintzadurari buruz argitaratu denaren ondorioz, Eguzki Dorreko Jabeen Komunitateak, sortu den giza alarma eta artikulua batzuk igortzen diguten arduragabekeria ikusirik, hurrengoko puntualizazioak egin nahi ditu:

1. Maiatzak 10, igandean, brintzadura zegoela konturatu bezain laster igeltsero bati deitu zitzaion lehen ikuspegi bat izateko eta behin-behinean hesi batzuk jarri ziren zonaldera sarrera galarazteko.

2. Kalteen balorazio erreala egiteko ezintasuna ikusi zenean, igandean bertan Gruas Garronekin harremanetan jarri ginen astelehenean, maiatzak 11, goizeko lehenengo orduan garabi bat ekar zezan, brintzadura hurbilagotik ikusteko. Hurbilagotik azterketa bat egin eta gero, eta kontuan izanda garabiak har zezakeen garaierarik altuena (30 m.) ez zegoela kalteen garaieraren gainetik, konponketak egiten ez hastea eta arkitekto bati deitzea erabaki zen, honek brintzadura aztertu eta konponketa egitean zuzen eta gainbegirar zezan. Beste alde batetik, astelehenean ere, zonaldea guztiz hesitua gelditu zen.

3. Maiatzak 12, asteartean, goizeko 09:00ak inguruan, Ricardo Olan Mugica arkitektoa eta Rafael Martínez de la Hidalga Cortazar arkitekto teknikoa agertu ziren. Garabia erabiliz, edifizioaren eta

brintzaduraren azterketa egin ondoren, txosten tekniko bat egin eta konponketa lanaren zuzendaritza eramango zute-la erabaki genuen.

4. Olan arkitekto jauna joan zenean, fatxadaren gainezaduraren zati baten askatzeak ekar zezakeen arriskua lehenbailehen eragozteko asmoarekin, konponketa edozein izanik ere, Jabeen Komunitateak suhiltzaileei deitzea erabaki zuen, edozein erasiketarako hauek duten esperientzia kontuan izanik. Orduan, eta haien bitartez, jakin izan zuten Udal Zerbitzu Teknikoek zerbait gertatu zela. Suhiltzaileei deitzea erabakia hartu ez balitz, ziur aski konponketa egiteko baimena eskatzeko orduan jakin-goto zuten.

Puntualizazio hauekin, Eguzki Dorreko Jabeen Komunitateak, konponketa egiteko pausu guztiak berezko ekimenez, beharrezko arreta guztiak kontuan izanik eta Udal Zerbitzu Teknikoen interbentzioaren beharrik gabe egin dituela argi utzi nahi du.

Komunitate berberak jakin nahi lukeena zera da: udal errekerimendua nola agertu zen prentsan komunitateak berak jaso baino bost egun lehenago eta ea prentsako bertako berriemaileek ez daukaten egia guztia jakiteko bete-behar moralik zerbait argitaratu eta giza alarma sortu baino lehen.

Eguzki Dorreko Jabeen Komunitatea

ENRIKE ETA GAZTARENTZAT

Hamar urte igaro dira dagoeneko espainiar gobernua Enrike Letona Viteri eta Jose Ignazio Gaztañaga espetxeratu eta sakabanatu zituenetik.

Beren barroteez Euskal Herri amestu baten itxaropenean duintasun fronte bat erai-ki duten Enrike eta Gaztañakoak suntsitzeko diseinatu den espetxe errejimenean eguneroko tortura jasaten hamar urte!

Gaur, herri honen gehien-go sozialak sakabanatzearen (dispertsioaren) kontrako eta preso politiko guztiak Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzearen aldeko jarrera anizkoitza azaldu duenean, Enrike eta Gaztak beren haragietan sufritzen dute oraindik kondenari erantsitako zigor basati hori.

Gaur, Euskal Herria eta estatu espainiarraren arteko gatazkaren aterabide negoziatua oihu herrikoi batez aldarrikatzen denean, ETA erakunde armatuak espetxe eremuko suetena eginez, eman duen urrats baikor bakarra eman duenean, arazoa konpondu ordez, espetxe eta exilioarekin herria mehatxatzen duen gobernuko alderdi batekin topo egiten dugu, frankismoaren garairik onenetan bezala.

Gaur, hamar urte geroago, Gaztañaga eta Enrike, eta barrote eta zementu barneko oinazea duten guztiak gogoratzen ditugu, berekin gaudela esateko, eta etxera ekartzeko gure promisiua azaltzeko.

Gaur, espetxeetako zapal-

kuntza politika diseinatu edo laguntzen dutenei esaten diegu herri honen duintasuna ez dela makurtuko beren zitalkerietara.

Gaur, zuei diotsuegu, Enrike Letona Viteri, Jose Ignazio Gaztañaga eta errepresaliatu guztioi, zuen tinkotasun eta emankortasunak harro sentiarazten gaituela.

Urteurren goibel honek (hamar urte zuek gabe!) balio izan dezala herri honen aldarrikapena inoiz baino indartsuago entzun dadin eta gure askatasun oihua zuek gure aldamenen izanik, egiazko egoera bihur dadin.

Eskerrik asko Enrike! Eskerrik asko Gaztañaga! Presoak Euskal Herrira! Amnistia osoa!

*Gider Zumalde
Arrasateko Amnistiaren
Aldeko Komitea*

MILA ESKER

Eskerrik asko Xabier nire Egizonaren hiletetera etorri zinetenei. Egun hartan nire nahiak eta nire gogoak ez zuten bat egin. Nahia, denak agurtu eta besarkatzea. Nahiz eta gogorik ez izan zuekin egoteko, denon berotasuna nabaritu nuen. Horri esker, eguneko egun, joango gara bidea egiten.

Itziar Ezpeleta

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 943 - 77 13 78

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 943 - 79 26 99

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE

M MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 71 24 25

Nola moldatuko litzateke euskal futbol selekzioa mundialetan?

Eusko Legebiltzarrak euskal selekzioak aldarrikatzen dituen Kirol Legea onartu du



Marisabel Carmona
13 urte
Ikaslea

Ondo arituko litzateke. Hemen ere jokalaria onak ditugu, ez bakarrik Brasilen eta.



Felix Arrospe
33 urte
Tabernaria

Euskadin jokalaria onak daude eta ondo arituko litzateke selekzioa.



Pedro del Rio
31 urte
Langilea

Nire ustez, 5. geldituko litzateke. Oso jokalaria onak dira, baina ez daude munduko beste selekzioen maila berean.



Marina Perez
9 urte
Ikaslea

Ondo. Jokalaria onak dira, Julen Gerrero... Irabazi egingo lukete.




Maixol Alonso
35 urte
Langilea

Oso jokalaria onak dira eta ondo arituko litzateke. Gainera Euskal Herriatik, merezi dugu.



Iker Villar
20 urte
Ikaslea

Goi mailan ibiliko lirateke, kalitatezko jokalaria ditugu eta.



Jose Daniel Zubillaga
48 urte
Teknikoa

Finalerdietara iritsiko litzateke. Oso jokalaria onak daude Euskal Herrian.



Juantxu Blanco
38 urte
Langilea

Oso ondo arituko lirateke, begira bestela Espainiako selekzioan zenbat euskaldun ari diren, bost titular daude...

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Osasuna oinetatik bururaino doa txikitatik zaindu zapaltzeko modua

- Etorri guregana
- Guk dauzkagu umeentzako zapata erosoak!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

Arrasate

LANAK

GENERAL GARRON

Noiz behinka, kalea itxita egongo da ordu batzuetan.

KONTZEZIÑO AUZOAN

Bidea asfaltatzen ari dira.

OBENERREKAN

Jolastokia berritzeko lanak.

TAKOLON


Biribil berria egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.

GARIBAI - S. ANDRESEN

Semafoeren pareko zuloak estaltzeko lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 12



LARUNBATA 13



IGANDEA 14

Laino asko izango dira. Euria ere egin dezake, baina egunean zehar desagertzen joango dira.

Euria ekar dezaketen lainoak agertuko dira, baina egunean zehar desagertzen joango dira. Behelainoa.

Tarteka lainoak. Behelainoa ere izango da. Tenperaturak beherantz egingo du.

Ilargia



ilbera

Ostegunean, ekainak 18, ilbera izango da.

Mezak


San Frantzisko
 (Frantziskotarren elizan Parrokia berritu arte)
Larunbatean
 09:00 (elebiduna)
Igandean:
 09:00 (euskaraz)
 10:00 (euskaraz)
 11:00 meza nagusia.
 12:30 (erdaraz)
 19:00 (erdaraz)

Uribarri
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean:
 11:30 (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

San Andres
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean
 10:00 (erdaraz)
 11:00 (euskaraz)
 12:00 (erdaraz)
 13:00 (erdaraz)


Santa Teresa
Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean
 10:30 (erdaraz)
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila
%95,9



Tenporak

Joan den asteko ostegunean, ostiralean eta larunbatean izan ziren tenporak eta honako aurreikuspen hau utzi digute, Pello Zabalen esanetan: uztailaren hasiera arte, giro ona izango dugu. Uztailaren eguraldi nahasia. Eta abuzturako eguzki gutxi eta laino asko.



Udan
ere

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Udal Euskaltegira!

1998ko udako ikastaroak

ESKAINITZA: EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE maila guztiak eta EGA. Mintzamina lantzeko ikastaroa • **ERRITMOAK:** egunean 5 ordu, goizez • Bekak eta diru laguntzak ditugu. Galde ezazu! • 16 urtetik gorakoentzat • **BULEGO ORDUTEGIA:** goizez: 10:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-18:00 • **IKASTAROAREN IRAUPENA:** ekainaren 29tik uztailaren 24ra • **MATRIKULATZEKO EPEA:** ekainaren 1etik 15era • **BARNETEGIA:** uztailaren 1etik 15era, ZERAINEN.



ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arima Zuri plaza, 2 • ARRASATE • Tel.: 943-79 70 77 / 79 77 88

**UDA
HONETARAKO**

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK

- **UDAKO IKASTAROAK**, Ingalaterran, Irlandan, Kanadan, familia batekin elkarbizitzen, 13tik 18ra bitarteko gazteentzat.
- **LAN ESPERIENTZIA**, Ingalaterran enpresatan; lanean eta familia batekin elkarbizitzen.
- **UDALEKUAK**, 12 egunekoak, Brinkolan 9tik 13 urtera arteko umeentzat
- **IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK CIMen**

**ALEMANA
INGELES
FRANTSESA**



HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua, 14
Te. 943 71 60 00
OÑATI

Araba Etorbidea, 4
Tel. 943 71 20 55
ARRASATE

Eta gainera gure Mediateka zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. DOHAINIK.

12 ostirala

■ ZINEA

Gattaca Alai zineman, 22:00etan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

Dut eta Fermin Muguruza izango dira, gaueko 21:00etarako aurrera, euren disko berria aurkezten. Hantxe izango dira Lif hondarribiarak eta Gaitzerdi antzerki taldea ere.

13 larunbata

■ ZINEA

Novio de alquiler Alai zineman, arratsaldeko 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ TXIRRINDULARI
LASTERKETA

San Joanetako Sari Nagusia jokatu dute arratsaldeko 16:30etatik aurrera, Benjamin, alebin eta haur mailako txirrindulariek.

■ LIRAIN ABESBATZA

Goikobalu Abesbatzak antolatuta, Gorkizko "Lirain" abesbatzak, kontzertua eskainiko du, Daniel Rubioren zuzendaritzapean. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan izango da, San Frantzisko elizan.

■ ERGUIN HERRI
ESKOLAREN EGUNA

Goizeko 09:00etan hasiko da jai eguna eta 13:00ak arte luzatuko da. Hantxe izango dira ikasleek ikasturtean zehar egindako lanen erakusketa, lantegiak, pailazoak, gimnasia erritmikoa eta karate erakusketa, gazteluak eta beste hainbat ekintza.

■ ANTZERKIA
AMAIA ANTZOKIAN

Corazón de Encina Kultura Elkarteak antolatuta, "Teatrapo" antzerki taldeak *Ajo de Peces* antzerki saioa eskainiko du. Arratsaldeko 19:30etan izango da, Amaia Antzokian.

14 igandea

■ ZINEA

Novio de alquiler Alai zineman, arratsaldeko 17:00, 19:30 eta 22:00etan.

■ URUÑAKO
IKASTOLAREN ALDE

AEDK Urruñako ikastolaren alde egingo den kale agerraldirako autobusak antolatu ditu. Kale agerraldia goizeko 11:00etan izango da. Hori dela eta, autobusa goizeko 09:00etan aterako da, Garibai kaletik. Txartelak, 1.200 pta.tan. daude salgai.

■ TXISTU EMANALDIA

Igandean, 14an, Aretxabaletako Leizarra musika eskolako txistularien emanaldia izango da Kurtzebarri eskolan. 11:30etan kalejira. 12:30etan kontzertua.

■ ARGAZKI RALLYA

Goizeko 09:00etan hasiko da ASA taldeak antolatu-

tako argazki rallya. Parte hartzaileek 08:30etatik 09:30etara eman dezakete izena ASAREN egoitzan, egun berean. Izenak ematerakoan 1.500pta ordaindu eta argazki erroiloak jaso beharko dira.

■ TXIRRINDULARI
LASTERKETA

San Joan Sariaren 59. edizioa jokatu da 1. eta 2. mailako afizionatuentzat. Irteera eta helmuga Gariabi etorbidean izango dira.

15 astelehena

■ ZINEA

Novio de alquiler Alai zineman, arratsaldeko 19:00 eta 21:30etan.

■ DROGEI AURREA
HARTZEKO

Arrasateko elkarteek eta udaleko drogen prebentziarako teknikariak, bilera egingo dute astelehenean eta asteartean, arratsaldeko 18:30etan.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek bete nahi ditu:

- Irratiko teknikaria
- Ingurugiro Eskolako irakaslea

Oinarri-arauak: udaltxean jaso daitezke.

Eskabideak aurkezteko epea: ekainaren 22an, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

URRATS AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 943 - 79 87 74
ARRASATE

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 - 79 20 57

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferreries, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 46 62

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
Setatik 8etara.

Tel.: 943 - 79 26 99

udaletxean. Astelehenean Drogomenpekotasunari buruzko Plana euskaraz aurkeztuko du teknikariak. Asteartean, berriz, gaztelaniaz izango da aurkezpena.

■ **ARRASATE MUSIKAL**

Gitarra eta flauta kontzertua eskainiko du Arrasate Musikalek. Emanaldia arratsaldeko 19:30etan izango da, Arrasate Musikalen etxeko areto nagusian.

■ **ANOREXIA ETA BULIMIA**

Anorexia eta bulimiaren inguruko mahai ingurua antolatu du Emakume Sailak. Saioa Monterronen izango da, 19:30etan.

17

asteazkena

■ **ARRASATE MUSIKAL**

Ikasturte bukaerako kontzertua eskainiko dute Arrasate Musikaleko ikasleek. Emanaldia arratsaldeko 19:00etan izango da Arrasate Musikalen etxeko areto nagusian.

16

asteartea

■ **ZINEA**

Novio de alquiler Alai zinema, arratsaldeko 19:00 eta 21:30etan.

■ **BIOLIN KONTZERTUA**

Arrasate Musikalek biolin kontzertua eskainiko du arratsaldeko 19:00etan. Emanaldia Arrasate Musikalen egoitzan izango da.

■ **NAROA ENEKOTEGI AMAIAN**

NarOA Enekotegi, opera abeslariaren kontzertua egongo da arratsaldeko 19:30etan.

18

osteguna

■ **IKASTURTE BUKAERA**

Arrasate Musikaleko ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eskainiko dute. Emanaldia musika eskolaren egoitzan izango da, arratsaldeko 19:00etan.

San Joanetako txirrindulari probak direla eta, larunbatean 17:00etatik 18:00etara Maalatic Muxibarrerako bidea itxita egongo da. Igan-dean, berriz, Maalatic Kontzeziñorako itxiko da, goiz partean.

■ **IRTEERA BIASTERIRA**

Iturbide egoitzak irteera antolatu du Biasterira (Laguardiara), datorren asteazkenean. Berri gehiago, Iturbide egoitzan bertan.

■ **68KO MAIATZA**

Zutik alderdiak 68ko Maiatza gogoratzeko antolatu duen erakusketa igandera arte egongo da zabalik, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Erakusketan orduko agiriak eta argazkiak ikusi ahal izango dira.

■ **ARGAZKI LEHIAKETA**

"Gazteak eta komunikazioa" izenburupean, IX. Argazki Lehiaketa antolatu dute Arrasateko Udalak eta ASA taldeak. Lanak aurkezteko epea urriaren 9an izango da. Aurkezten diren argazki guztiekin erakusketa bat egingo da Monterronen, urriaren 16tik 31ra bitartean.

■ **HELDUEN HEZIKETA**

Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxeak izenak emateko epea zabaldu du. Interesatuak Arrasteko zentruan eman dezakete izena edo Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletxeetan. Berri gehiago, 943- 77-11-72 zenbakian.

■ **IZENA EMATEKO MUSIKA ESKOLAN**

Arrasate Musikalek ekainaren 19ra arte luzatu du izenak emateko epea. Interesatuak Musika Eskolako idazkaritzara jo beharko dute.

■ **SOLDADUAK SAN JOANETARA**

soldaduzka egiten ari diren gazteek San Joan jaietan herrira etortzeko aukera izan dezaten, udalak dei egin die haien senideei eta adiskideei soldaduen agintarien izena eta helbidea eskatzeko, jaietarako baimenak eskatu behar dira eta.

■ **HELDUEN DANBORRADA**

Helduen danbonborradarako bi entseiu baino ez dira gelditzen. Azken entseiuak asteartean eta ostegunean izango dira, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Parte hartu nahi duenak, azkar ibili.

■ **MARGO LEHIAKETA**

Aire Zabaleko XVII. Pintura Lehiaketa antolatu du Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentruak. Ekainaren 21ean egingo den lehiaketan edozein adinetako margolarik har dezake parte. Margoak Monterronera eraman beharko dira egun horretako 14:00ak baino lehen. Guztira 270.000 pta banatuko dira saritan.


TABIRA
Dietista • masajista
psikologoa
Munar, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 73 54

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 - 76 59 39 / 943 - 76 59 72 • Fax: 943 - 76 25 72

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 - 79 15 65

USTEAK USTE

Parrokoaren adorea

Ur handitan sartu zen Jose Mari Astigarraga, Mondragoeko parrokoa, 1992an San Joan Bataiatzailearen parrokoa zaharbertitze-ko asmoari ekin zionean. Artean parrokia zen herriko monumentu historiko-artistikoaren artean egoera penagarrian zegoen ia bakarra. Nola lortu aurreikusten zen lan itzela aurrera atera ahal izateko jakinduria eta dirutza?

Jakinduria herrian bertan aurkitu zuen, parrokia zaharbertitze-ko eratu zuen batzordean. Sasak —600 milioi pta inguru— ere jakin izan du jiratzen.

Sei urte igaro ditu, eguneroko elizako lanez gain, proiektu hau aurrera ateratzeko egin behar ziren bilerak, deiak, aurkezpenak eskariak, etab., etab., egiten eta eragiten. Azkenean, hementxe dugu parrokia, ia hasieran bezain benetakoa bere gotiko soilean.

Eskerrik asko lan itzel hau aurrera ateratzen lagundu duzuen herritar guztioi eta bereziki zuri, Jose Mari, hasiera-hasieratik arnasa eta bultzada ematen asmatu zenuelako.

Joxe Aranzabal



Gora euskara, aurrera AEK

Oskar Elizburu*

AEKren izena eta eguneroko lana zikindu nahian berriro ere dabiltzala eta, jasan dugun uholde mediatikoa salatu nahi genuke. AEKrekin zerikusirik ez duten balizko gertaera batzuk hartu eta inolako kontrasterik egin gabe eta errugabetasun printzipio demokratikoa ahaztuz, izugarriko kanpaina mediatikoa jasan dugu.

Gertaerak maiatzaren 27an hasi ziren, gure lankide den Iker Beristain atxilotu zutenean bere etxean. Horren ondoren, bere lantokia miatu zuten gau osoan zehar, hau da, AEKko Gipuzkoako bulegoa, eta nahi izan zuten guztia eraman zein kopiatu zuten, inolako azalpenik eman gabe ez arduradunei eta ez erakundeari ere. Eta hau guztia gutxi balitz, hurrengo egunean AEK bere osotasunean blokeatzeko eta oztopatzeko eraso zuzena izan genuen, gure kontu guztien bahiketa judiziala hain zuzen ere. Ego-

era honek bi aste iraun du, azkenik, astearte honetan desblokeatu dituzten arte.

Ondorioz, konturik mugitu ezinean, matrikulaziorik kobratu ezinik, diru laguntzarik jaso ezinik konturik izan arte, irakasle guztiok kobratu gabe hilabete honetan, materialik erosi ezinik, etabar, dena inolako esplikazio, agiri eta argibide barik.

Gure (AEKren) kontra inongo salaketarik ez badute aurkeztu, zergatik hartu dira horrelako neurri bortitzak? Dudarik gabe, beste kanpaina baten barruan gaude, euskara eta zuzenago oraingoan AEKren aurkako kanpaina batean, azken hilabeteotan

“ AEK-k ez du bere jarduna ez den bestelako finantziaketetan parte hartu eta hartuko ”

PP eta UAren babespean izan ditugun erasoaldien ildotik.

Pasa den abenduan hasi zen indarra hartzen. Apirilean diru kontuak zikintzen ahalagindu ziren eta Legebiltzarrean aurrean sinesgarritasun osoko auditoriaz gure kontuen gardentasuna frogatu bagenuen ere, hor jarraitzen dute euskararen aurkako gurtzadan. Gure kide bat atxilotu eta beste inorekin egiten ez dena egin diote AEKri, erakunde osoa blokeatu, kakazten ahalegindu eta, hitz batean esateko, “izorratu”.

AEKk garbi azaldu nahi dio jendeari bere jarduna ez den bestelako finantziaketetan ez duela parte hartu eta hartuko, beti euskararen eta honen zabalkunderako egin duela lan eta horretara erabiltzen dituela bere indar eta diru guztiak. Bere konpromisoa adierazten du gainera, horretan jarraitzeko eraso guztien gainetik.

Honen aurrean elkartasuna adierazi digutenei eskerrik eman eta honekin batera azaldu nahi genuke erasoak euskarari zuzenean datozkiola, hemendik eta handik, min ematen baitie gure hizkuntzak aurrera egiteak, eta gaur AEK bada, bihar beste edonor izan daitekeela, oroimena erabilita, froga garbiak baititugu. Herriak bere elkartasun deia zabal dezala eskatuko genuke.

Gora euskara, aurrera AEK.

* AEKko irakaslea



Euskaraz gogotsu!

XXIX. DERIOKO UDAKO EUSKAL IKASTAROA

Ekinaren 29tik uztailearen 11ra

- Alfabetatzea
- Itzulpengintza
- EGA
- Bertsolaritza
- Mintzamena
- Hobetze maila
- Euskalduntzea

LABAYRU IKASTEGIA

Aretrabaleta 1, 1 (Indautxuko plaza) BILBO
Tel/Faxa: 94 443 76 84
E-maila: labayr01@sarenet.es

ELGETA

① Hiltegi zaharra bota dute

Elgetako Udalak bota egin du hiltegi zaharra eta lanean ari da orain eremu horietan zelai-gune bat egiteko. Guztira milioi t'erdi pezeta gastatu dira lan hauek egiten. Hiltegia Pagatzako industrialdearen ondoan zegoen eta oraindik ez dago garbi zer egingo den eremu horretan, izan ere, oraindik erabakitzeke baitago Elgetako saihesbidea nondik nora pasatuko den.

OÑATI

② Unibertsitateko liburuak ikusgai

Oñatiko Unibertsitatearen historiari errepaso polita emateko aukera dago egun hauetan Unibertsitateko Ikasgela Nagusian. 500 urte dituzten liburuen bidez, unibertsitatea nola sortu zen, izan duen bilakaera eta herrian izandako eragina jaso daitezke. Erakusketak ekainaren 17ra arte egongo da zabalik. Goizez 11:00etatik 13:00ak arte. Arratsaldez 18:00etatik 20:00ak arte. Astebukaeran ordu bat gehiago izango da zabalik, bai goizez bai arratsaldez.



ARETXABALETA

③ Larrinbe urbanizatuko da

Aretxabaletako Udalak Larrinbe industrialdea urbanizatzeko proiektua onartu zuen azken osoko bilkuran. Udalak era-

baki zuenez, 3.500 m²ko lurzoruan bi solairuko eraikina egingo da. Oraindik ez bada go zehaztuta ere, seguraski lantegiak jarriko dira hantxe. Horrez gain, eremu horretako hirigintza lanak ere egingo dira.

ESKORIATZA

④ Azoka arrakastatsua

Eskoriatzako Artisau eta Baserritarren feria izugarriko arrakasta izan zuen joan den asteburuan. Feriaren II. edizioak erakusketari eta ikusle gehiago erakarri zituen. Azkenean feriako lehiaketaren irabazleak, honako hauek izan ziren: lehen saria ortuko produktuetan Apotzagako taldeak eraman zuen, bigarren saria Arrasateko Azalgorrik, perretxiko aukeragatik eta hirugarrena Bolibarko Zubixete, honek ere ortuko produktuekin.

BERGARA

⑤ Zabaleta irabazle

Gorlako igoeraren VIII. edizioan, Aitor Zabaleta bergarra izan zen irabazle, baina herriko beste piloetok ere marka ederrak egin zituzten. Alberto de Lucasa 8. geratu zen eta Javier Bretaña 9. Bergara Racing taldekoek plaka oroigarria ezarri zuten Gorlako errepedeko horma batean, beren idoloa den Ayrton Sennaren omenez.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 78 15 / 943 - 77 10 42 Faxa: 943 - 77 14 76

"Udalean gehiengoaren adostasuna dago"

Arrasateko alkateak, Jose Mari Loitik, orain arte udalbatzaren buruan egindako lanarekin gustura dagoela esan zuen ATBko Alkatearekin Berbetan saioan. Bart gaueko saioan Joxe Aranzabal ARKoko erre-dakzio buruak, Juan Luis Azkarate *Correoko* berriemaileak eta Arantxa Egoskozabal *Extrak*o zuzendariak egindako galderei erantzun zien alkateak.

Jose Mari Loitik oposizioak askotan leporatutako izkutukeriarik ez dagoela esan zuen. "Kontu guztiak argi daude eta ni alde horretatik trankil nago. Gertatzen dena zera da: gehiengo ados dagoela baina unanimitaterik ez dagoela". Kazetariak azken osoko bilkuretan izandako eztabai-



Alkateak hiru kazetari izan zituen galderak egiten.

da eta elkarrizketa faltagatik galdetzerakoan, zera erantzun zuen Loitik: "Batzorde informatiboetan eztabaidatzen dira

gaiak. Behin diktamena eginenez gero, osoko bilkuretan ez dago berriro eztabaidatu beharrik".

Zaldispren bizi diren portugaldarrek arazo asko sortu dituztela esan zuen alkateak. Hori dela eta, handik botatzeko erabakia bidezkoa dela esan zuen. "Lehenengo herriko araudia bete beharko dute, eta gero ikusiko da".

Horrez gain, zenbait berri aurreratu zituen alkateak. Alde batetik, Takolo eta Markuleta lotzeko tunelaren aurreproiektuan lanean dabil-tzala. Tunel horrekin konpondu nahi dira Udala plaza-ko biribilaren inguruan sortzen diren trafiko arazoak. Bestetik, Zerrajerarekin harremanetan dabiltzala esan zuen, hitzarmena lortzeko, eta lau hilabete barru edo, erabakiko dela.

Autoenplegurako ikastaroa irailean hasiko da

Arrasateko Udalak autoenplegua bultzatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroak enpresa ekimen berriak bultzatzea du helburu eta langabeei zuzenduta dago. Formaziozko ikastaro honetan parte hartu nahi duten langanbeek autoenplegurako proiektu bat aurkeztu behar

dute, baina ez da derrigorrezko baldintza.

Hirugarren urtea da udalak ikastaro hau antolatzen duela.

Aurtengoa irailean hasiko bada ere, dagoeneko izena eman daiteke Arrasateko Udaleko Lan Zerbitzuan.

Eskola publikoetako ikasleek autobusa dohain

Datorren ikasturtetik aurrera, San Andres, Musakola eta Erguin herri eskoletara joateko dohaineko autobusa izango dute haur hezkuntza eta lehen mailako haurrek. Horrela jakinarazi die Hezkuntzako Ordezkaritzak hiru zentru publiko hauetako zuzendariari.

Ikasleen gurasoek aspaldi eskatu zuten doaneko garraioa. Neurri horrekin, arduradunek eskola publikoetan haur gehiago matrikulatzea espero dute. Autobusa, Maala, Altamira, Musakola, Monterron, Uribe eta Erguinetik zehar pasatuko da.



GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA DEBA GARAICO AEK-n

Baldintza: EGA duna izatea

Berri gehiago: ERDU AEK euskaltegian

edo 943 77 03 69 telefonoan

PLAZA MUGATUAK

Ekainaren 18an inaugurazioa izango da

Musika zuzenean

Internet

Kafetegia, pintxoak, menuak eta karta

31 logela erabat hornituak



Lan bazkariak, ezkontzak
eta urtebetetzeak



200 pertsonarentzako edukiera
duen bilera gela



H
HOTEL
MONDRAGON




Biteri Etorbidea, 16
Tel.: 943 - 71 24 33
20500
ARRASATE - MONDRAGON
(Gipuzkoa)

Hotel Mondragon-en
elkar ikusiko al dug

26?

**Zuen erreserbak
jasotzeko prest
gaituzue**



euskaraz BAGARA!

ARRASATEKO ERDU-AEK
EUSKALTEGIA
EUSKARA IKASTAROAK UZTAILEAN

• Maila guztiak. • EGA uztailean eta irailean •
Iraileko errekeraketak.

Matrikula epea: ekainak 19

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA ERDU AEK EUSKALTEGIAN

Garibai kalea 14, 3. Tel.: 943 - 77 03 69

Beka sistema • Udalaren laguntzaz.

Irakasle Eskolaren euskara hiztegia

Eskoriatzako Irakasle Eskolak euskara hiztegi berezia jarri du merkatuan. Ume eta gaztetxoei begira egina dago eta "Lehen Hiztegia" du izena. Anaya-Haritz argitaletxeak kaleratu du, Vox izeneko hiztegi bilduman.

Orain sei urte atera zen lehen argitalpena baino osatuagoa dator hau, formato erabilgarriagoa du, koloretan eta Euskaltzaindiaren azken erabakietara egokitu. Hiztegiaren egilea Julia Marin da. Xabier Mendiguren eta Ibon Sarasola izan ditu aholkulari.

Guztira 9.487 hitzen esanahia dakar, 1.000tik gora marrazki, 17 lamina koloretan, adibide mordoa eta sinimoen laguntza.



PSE-EEK Arrasaten antolatutako prentsaurrearen une bat.

PSE-EEK aurrejubilazioei buruzko dekretu berria salatu du Arrasaten

Isabel Lopez i Chamosa PSOEko diputatuak, Elvira Kortajarena Gipuzkoako PSE-EEKo diputatuak, Iñaki Pierruges Gipuzkoako PSEko idazkari instituzionalak, eta Paco Garcia Arrasateko PSEko idazkariak, PPK indarrean jarri duen dekretua salatu eta PSOEk egingo duen lege proposamena aurkeztu zuten joan den ostiralean Arrasaten.

PSOEK gauzak lehen zeuden egoerara itzultzea eskatuko du. Gauzak konpontzeko, EAJ eta CIU partidu nazionalistek izango dute giltzarria. Izan ere, IUk ere dekretuaren kontra egingo baitu. Paco Garcia, Arrasateko PSEko idazkariak, zentzutasuna eskatu zion EAJri, eta herri-tarrenganako duen erantzukizuna gogorarazi.

PPren dekretuak dioenez, 60 urterekin erretiroa hartu nahi dutenek, %25 kotizatuta izan beharko dute Erregimen Orokorrean. Horren arabera, gaur aurrejubilatuta nahi diren erdiak ezingo lukete erretiroa hartu. Kooperatibetan 3.630 lagunek eskatuko dute aurrejubilazioa 2008 urte bitartean. Askok ezingo dute lortu, dekretuaz ez bada baztertzen.



Parques y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Lorazaintzako
mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

astea bi hitzetan

Ikasleen kale agerraldia

Arrasateko hainbat ikaslek kale agerraldia egin zuten joan den astelehenean, aurreko astean Ertzaintzak Bizkaian egindako operazio poliziala salatzeke. Operazioan hamahiru lagun atxilotu eta Ina Zeberio hil zuten ertzainek. Ikasleak, 40 bat laguneko taldean, Arrasateko udaletxearen eta batzokiaren aurrean bildu ziren eta EAJren jarrera salatu zuten.

Arizmendi topaketak

Gizabidea fundazioak 97ko Arizmendi Topaketei buruzko liburua kaleratu berri du. Liburuak, topaketetan parte hartu zuten Jon Sarasua, Pedro Hernandez eta Antonio Canceloren hitzaldiak jasotzen ditu. Hizlari bakoitzak On Jose Maria Arizmendiari buruz duen

ikuspegia eman zuen. Ikuspegiak desberdinak baina osagarriak dira. Liburu interesgarria.

Udalako Arteta baserriaren alde

Udala auzoko Arteta baserriaren aldeko musika emanaldi bikaina izan zen joan den igandean Amaia Antzokian. Artista ugari doan jo zuten, jasotako diruarekin orain urtebete erre zen Arteta baserria konpondu ahal izateko. 325 lagun joan ziren musika emanaldira. Ganbotarrek saldutako errifen sariak ere zozkatu ziren: Mallorkarako bidaia 6.270 zenbakiarentzat, hozgailua 7.257arentzat eta 10.000 pta-ko eros-txartela 6.290entzat.

Donostiako arrasatearrak

Hiriburuan bizi diren arrasatearrak urtean behin elkar-

tzen dira herriko kontuak gogoratzeko. Aurten ere, joan den larunbatean elkar-tu eta futbol partida, meza eta bazkaria izan zituzten. Guztira 88 lagun bildu ziren. Horien artean Arzamenditarrak. David Arzamendi lehenengo bazkaria egin zenetik joan izan da eta omenaldi txikia egin zioten. Aurtengoa bazkariaren 15. edizioa izan da.

Erizaintza topaketak

San Juan de Dios ospitaleak gaixo psikikoak zaintzen dituzten erizanei zuzendutako jardunaldiak antolatu zituen joan den astean. Hizlariak, Anjel Agiriano ospitaleko gerentea, Alberto Santo Tomas, German Pacheco eta Maria Jesus Zapiain izan ziren. Leku askotatik etorritako ehun lagun baino gehiago bildu zituzten jardunaldi hauek.



“Arrasate

Press aldizkariak bere idazkerako gauza asko aldatu zuten liburua ('Euskara Batuaren Ajeak') irakurritakoan, eta *Euskaldunon Egunkariak* ere bai, baina *Irutxulo*, Donostiako aldizkariak, batere ez. Nik errezeloa dut batzuek ez dutela beren idazkera aldatu liburua irakurri ez dutelako, eta beste batzuek lehenengo bidetik jarraitzen dutela zera pentsatzen dutelako: 'Nik aldatuko nuke, baina kontuak beste alde batetik dihoaz'. Hain zuzen, liburuaren etsairik handiena horixe da: gerta liteke batzuek nik esandako aldaketak egiten hastea, eta gero, ikustean besteek ez dutela aldatzen, atzera egitea. Dena dela, nik liburuaren eragina epe luzeago batean ikusten dut, bost-hamar urteren epean”.



GOIKOBALU AITA MADINAREN PIEZA BAT ESTREINATU

Ostiral iluntzean Goikobalu abesbatzak emanaldi gogoangarria eskaini zuen San Frantzisko elizan. Munduan lehen aldiz, Aita Madina musikoaren pieza bat estreinatu zuen. Musiko ospetsuak “Kriskitin Kraskitin” izena duen piezatxo bat idatzi zuen Arantxa Madina bere loba mondragoetarren omenez.

IBON SARASOLA

DV, 1998ko maiatzaren 14an

Hilbera kafetegia


Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 - 79 22 70

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 - 79 91 84
ARETXABAETA

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 52 50



AZKARATE MORRAS
PODOLOGIA KLINIKA
Ordua alde aurretik
Uribarri etorbidea, 5 behea
ARRASATE Tel.: 943 - 79 53 63

ESKERRIK ASKO MAITE!

San Frantziskoko katekistek ederto ezagutzen dute Maite Uranga garagartzarra. Hamabi urte dela Burgosera ezkondu eta harrezkero han bizí da, baina ez du harremanik galdu herriarekin.

Hemengo txutxumutxu eta berriak *Arrasate Pressen* irakurtzen ditu astero. Arrasateko katekistek ikasturte amaiera zela eta, Burgosera egin zuten ibilaldia eta Maite izan

zuten gidari. Argazkiko Las Huelgas-eko monastegira, eta beste hainbat lekutara eraman zituen. Hemendik eskerrik beroenak taldearen partetik, eta goraintziak *Arrasate Pressetik*.



SEASKAKO IKASLEAK

Iparraldeko lagunak, Donibane Garazikoak, ARKOn izan genituen joan den astean. Lau eguneko txangoa egin zuten Hegoaldea ezagutzeko. Arabako Ozeta herrian ostatua hartu zutela aprobetxatuta, Arrasateraino etorri ziren herriko komunikabideak ikustera.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76

**ARRASATE
HOTELA**

Biteri, 1 Tel.: 943 - 79 14 16
ARRASATE

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA
Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 - 77 11 20 • Faxes: 943 - 77 11 20



BEGIRA, BEGIRA!

Parrokiako santuek, irudiek, eta apaingarriek urte luzeetan bildutako hautsa zuten gainean. Orain, parrokiaren zaharberritze lanak bukatu direla eta, beraiek ere aurpegi garbia erakutsi guran, kalera irten eta dutxa ederra hartu zuten. Hurrengo milurtera arte...

IZENA

Ana Bujanda,

31 urteko arrasatearra izango da Mondragon Hoteleko zuzendaria. EHUn Enpresa ikasketak egin zituen. Zazpi urtez Saiolanekin batera sortutako Instituto Comunitario de la Tercera Edad enpresan ibili zen lanean.



HORI DA POZA!

A zer nolako poza bizi izan zuten Arrasate Kirol Proiektuan dabilzan neska-mutilek joan den larunbatean. Urte guztian egindako ahalegina eta lana saritzeko, sekulako festa egin

zuten Iturripen. Bukaeran, irakasleek eta Aitor Lopez Rekartek, *Bonbak*, sariak banatu zituzten. Munduko txapeldun izatea baino poz handiagoa hartu zuten batzuek!


ATB KABLEZ?

Euskalteleko ordezkariak ARKOra etorri ziren, bi komunikabideak, eta, batez ere ATBko instalazioak ezagutzera. Euskaltel interesatuta legoke kable bidezko paketeen horniketean, eta Arrasaten eskaintza eginez gero, ATB ere sartu beharko litzateke. Argazkian Iñaki Alzaga Euskalteleko ikusentzunezko negoziatorako kudeatzailea, Pako Allende idazkari nagusia eta Aitor Orobengoa ARKoko lehendakaria.



**Zure inbertsioak errentagarri egiteko,
utz ezazu estatuko lehenengo gestore
independentiek bidera zaitzan.**

<http://www.abasesores.es>

ABASESORES 

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6
S. Lorenzo Industrialdea
Tel.: 943 - 76 54 35
20570 BERGARA

Selektibitatea:

Batxilergoa bukatu eta betiko kezka sortzen da: eta orain zer? Ikasten aurrera egin nahi dutenek titulu, diploma eta lizentzia sorta izugarria daukate aukeran: Mondragon Unibertsitatearen eskaintza, Euskal Herriko Unibertsitatearena, lanbide hezkuntzarako zikloak, moduluak... Zaila da unibertsitate edo unibertsitatez kanpoko beste ikaske-ten artean aukeratzea. Baina behin aukeratu gero, froga garrantzitsua gainditu behar da helburua lortzeko: unibertsitatean sartzeko azterketa. Eta gainera, ahal baldin bada, kalifikazio onarekin.




Arrasateko 218 ikaslek egin dute aurten unibertsitatean sartzeko azterketa.

Gaur bukatu dute Arrasateko zein beste herri guztietako ikasleek unibertsitatean sartzeko azterketa. Arrasatetik 218

neska-mutil joan dira boli-grafoa eta nortasun agiria eskuan Donostia aldera azterketa egitera. Aurretik, beste azterketa bat —atzo— eta urduritasunez betetako egunak. Orduak eta orduak bere

rola ikasten ibili den antzelearen modura, atze ohiala jasotzerako orduan burua zuri geratuko ote zaion beldurrez. Azken finean, azterketa batean pikutara joan daiteke eta, urte osoko lana.

Irakasleen estatistiken arabera, ordea, gehienek gainditu egiten dute azterketa. Eta halaxe izaten da, baina gaitzena ikasketa eta azterketa-
ren batez bestekoan kalifikazio ona lortzea izaten da.



1. Ez
2. Ulertuz
3. Zientziak
4. Kopiatu
5. Andereñoi errazago ulertzen zaie
6. Tila
7. Apunteak
8. Kandela piztu
9. Ondo lo egin
10. Musika klasikoa

Oier Aliaga

11. Sukaldean
12. Lizentzia
13. Arrasatetik kanpoko etxebizitzan
14. Kuttun barik
15. 6'5

15 GALRA

1. Selektibitatea, bai ala ez?
2. Ikasgaiak buruz ala ulertuz?
3. Letrak ala zientziak?
4. Txuletak ala kopiatu?
5. Maisuak ala andereñoak?
6. Urduritasuna kentzeko, tila ala parranda?
7. Apunteak ala liburuak?
8. Aprobatzeko, errosarioa errezatu ala kandela bat piztu?

azken txanpa

SELEKTIBITATEA BAI ALA EZ?

Oier, Leire, Santi eta Alaitz, Arrasateko Institutuko ikasleek argi dute: unibertsitatean sartzeko azterketarik ez litzateke egin behar. Orain bi aste hasi ziren azterketa prestatzen. Irakasgai gogorrenak institutuan erreparatu izan dituzte egunero, baina etxean ere apunte artean murgilduta pasatu dituzte orduak.

Urte osoan lan egin eta gero, ez zaie bidezkoa iruditzen selektibitatearen eragozpena gainditu behar izatea. "Bi egunean bakarrik aztertzen dute urte osoan zehar egin duzun lan guztia. Denok izan dezakegu egun txar bat... Eta azkenean, akaso, ezingo duzu nahi duzun karrera egin" dio Oierrek. Leirek entzun duenez, erraza omen da azterketa gainditzea, baina zaila kalifikazio ona ateratzea. Dena den, baikorrak dira. Alaitzek dioen bezala, "urte guztiak gaindi-

tu eta gero, hau ez badugu gainditzen, uff...".

Irakasleen artean ere mota guztietako iritziak daude. Miren Olazabal, Institutuko Ikasketa arduradunak dioenez, selektibitatearen kontra egotea baino, irakasle asko azterketaren diseinu eta antolakuntzaren aurka daude. "Unibertsitateak beharrezkoa du azterketa ikasleen sailkatzea egin ahal izateko, baina batzuetan antolakuntzak kale egiten du. Urtean zehar emandako programa, batzuetan ez du ezagutzen ikasgai horren azterketa prestatzen duenak. Bestalde, desadostasunak daude azterketaren hainbat arloren inguruan: ikasleei ematen zaien denbora, azterketa egiteko lekua eta antolakuntza".

SEI AZTERKETA BATEAN

Atzo euskara, ingelesa eta gaztelaniazko azterketak egin zituzten ikasle guztiek. Gaur, ordea, LOGSEN egindako

modalitatearen ikasgaien azterketak. Guztira, atzo hiru eta gaur beste hiru. Bakoitza egiteko ordu eta erdi izan dute. Orain, sei notak batu eta selektibitatearen batez bestekoa aterako da.

Lau bat nahikoa da azterketa gainditzeko, baina *txanpa* ikasurteko azken notarekin egiten den batez bestekoa dago. Hau da, lau bat nahikoa da azterketa gainditzeko, baina LOGSEko media 6 edo 6,5ekoa izan behar da, azken kalifikazioa 5 izan dadin. Beraz, aprobata justua dutenek, lau bat baino gehiago ateratu behar dute.

Batez bestea egiteak ikasurteko nota jaisten du kasu askotan. Hori dela eta, ikasle askok ikasurteko notaren arabera aukeratzen dute euren etorkizuna. *Numerus clausus* dituzten ikasketek gutxieneko kalifikazio bat eskatzen dute. Oso altua izaten bada, ikasle askok beste bat auke-

ratuko dute, selektibitatean nota igotzea ia-ia ezinezkoa delako.

Institutuko ikasleek arlo tekniko eta soziala izan dute gustuko. Kasuak kasu, gehienek administrazioa eta enpresa zuzendaritza aukeratu dituzte. Ingeniaritza teknikoak ere eskaera handia izan du. Gizarte arloari dagokionez, dextek eman dute izena gizarte laguntzaile edo hezkuntza bereziko irakasle izan nahian.

BIGARREN AUKERA

Beti dago bigarren aukeraren bat bizitzan. Horrela dio behintzat esaera herrikoiak. Oraingoan azterketa gainditzen ez dutenek irailaren izango dute bigarren aukera hori. Berdin ikasurtea opor ostean bukatzen dutenek. Irailaren 10ean eta 11n egingo dira berriro frogak. Gaur bukatu duzuenoi, zorte on!

Marian Porcel

ERRAZ

9. Azterketa aurretik, ondo lo egin ala gaupasa?
10. Ikasteko, musika heavy ala isiltasuna?
11. Etxeko sukaldean ala liburutegian?
12. Diploma ala lizentzia?
13. Autobusean egunero joan eta etorri ala etxebizitza batean bizi?
14. Selektibitatean, kuttunarekin ala barik?
15. Selektibitateko nota?

Santi Custodio

1. Ez
2. Ulertuz
3. Zientziak
4. Kopiatu
5. Berdin da
6. Ez bata eta ez bestea
7. Apunteak
8. Kandela piztu
9. Ondo lo egin
10. Isiltasuna
11. Sukaldean
12. Lizentzia
13. Etxebizitzan
14. Kuttunarekin
15. Ez zekinat



Aldibi txapeldun!!



Aldibi eta Irati STS taldeok finalaren ostean. Urdaiazpiko eta guzti ipini ziren argazkia ateratzeko. Guztien aurpegian zorientasuna nagusi eta buruan gauza bakarra: afariko parranda.

Laburrak

■ ALDIBI TXAPELDUN

Azkenean bukatu da Zaldibarko futbito txapelketa. Garai-pena, berriz ere, beteranoek lortu dute. Aldibi taldeak 8 eta 3 irabazi zion Irati STS taldeari. Biek zituzten garai-pena lortzeko aukera berdinak. Hala ere, Aldibik urteetako esperientzia duela erakutsi zuen berriz ere, eta ez zion aukerarik eman Iratiri.

Norgehiagokaren lehen zatia 2 eta 0 amaitu zen. Bigarren zatian, berriz, Irati STSk erreakzionatu eta lehen gola egin zuen. Hala ere, Aldibikoak erne zebiltzan eta lau gol sartu zizkieten jarraian.

6 eta 2 zihozan, Sergiok Iratiren bigarren gola sartu zuenean. Hurrengo Aldibirentzat izan zen, Kortaren bidez. Aldibiren azken golaren aurretik, Igorrek, 3. gola sartzeko aukera izan zuen. Azkenean, ordea, Aldibiko Ikerrek txapelketako azken tantoa lortu zuen, 8 eta 3eta Aldibi txapeldun.

■ NARANJA MECANICA-ESTRELLA TABERNA

Hirugarren eta laugarren tokiak jokatu zituzten Naranja Mecanicak eta Estrella Tabernak. Norgehiagoka 8 eta 4 bukatu zen Naranja Mecanicaren alde. Nahiz eta markagailuan tarte handia egon, lehia handiko neurketa izan zen. Bi penalti egon ziren Estrella Tabernaren aurka. Azkenean, Naranja Mecanica taldeak 3. tokia, saria, urdaiazpiko eta kaxa bat txanpan lortu zituen. Estrellak, saria eta kaxa bat txanpan.

■ "ARANBURU" IRABAZLEA

Juan Luis Aranburuzabala, Aldibi taldearen zortzi goletako lau sartu zituen larunbatean. Ikerrek zabaldu zuen markagailua baina Aranburuk 2., 3., 4. eta 5. golak sartu zituen. Azken gola ere, Ikerrek sartu zuen. Juan Luisek, taldeko garai-pena ospatzeaz gain, txapelketako jokalarionen saria eskuratu zuen.



Taldeko kapitaina zenez gero, Inaxio Garro igo zen Aldibi taldearen saria jasotzera. Haritz Azkarraga eta Unai Diez sari banatzaileak izan ziren. Ez dakiguna da Inaxiok hanka parean duen baloia oroigarri bereziren bat izan zen, edo finaletik ihes egin zuen baloietako bat.



Zaldibarko txapeldunak eta azpitxapeldunak, partidaren hirugarren zatia Sarako askaldegian izan zuten. Horrenbeste tentsio askatzeko tenorea iritsi zen eta, benetan jai edarra izan zuten bai afal aurretik zein afal ostean. Bi taldeek kaxa bana txanpan irabazi zutela eta, jokalariek justuan hozteko astia eman zieten!

Penaltiei esker

Komando Alpargat eta P3000 taldeen arteko norgehiagokak azken unera arteko emozioari eutsi zion. Lehenengo zatia 4 eta 1 amaitu zen, Komando Alpargaten alde. Hasiera batean, P3000koek berenak egin zuela pentsatu zuten. Hala ere, bigarren zatian gogor atera ziren eta bai eta berdinketa lortu ere. Bi zatien amaieran, bosna zihoazen. Hori dela eta, final erdietako norgehiagoka penaltitara jokatu behar izan zen. Jaurtiketa libre-ostean, P3000ak 4 eta Komando Alpargatak 2 amaitu zuten. Beraz, partidaren emaitza 7 eta 9 izan zen, P3000ren alde.

Larunbatean Lontxo Tabernaren aurka jokatuko dute Pegasokoek. Aurretik, 3. eta 4. tokiak erabakitzeko norgehiagoka jokatuko dute Dribling eta Komando Alpargat taldeek, arratsaldeko 17:00etan. Finala, 18:00etan izango da. Azken partida izateagatik jolasleku berezia izango du norgehiagokak. P3000 eta Lontxo Taberna, Iturripeko kiroldegian izango dira aurrez aurre.

Aldibi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Finalistentzako sariak

Uribe Auzoko futbito txapelketako finalistek ez dute afaririk izango. Ez behintzat txapelketako arduradunek antolatuta. Hala ere, lau finalistek sariak jasoko dituzte. Txapeldunak, garaikurra, urdaiazpikoa, kaxa bat txanpan eta 50.000 pta jasoko ditu. Azpitxapeldunak garaikurra, urdaiazpikoa, kaxa bat txanpan eta 25.000 pta. Hirugarren sailkatzen direnak garaikurra, kaxa bat txanpan eta urdaiazpikoa. Laugarren tokian gelditzen den taldeak, berriz, garaikurra eta kaxa bat txanpan jasoko du.

Finaleko jokalaria onenak, bestalde, sari berezia jasoko du.

Uribe auzoa txapelketa

Emaitzak

Kom. Alpargat 5 - P3000 5
Lontxo Taberna 5 - Dribling 2

Hurrengo partidak

Larunbata, 13
Iturripeko kiroldegian

17:00 3. eta 4. tokiak
Dribling - Komando Alpargat
18:00 Finala
P3000 - Lontxo Taberna



LASAGABASTER-en

AUKERARIK ONENA



DOCKERS®
pants by
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Haur mailako korrikalaria

JURDANA AIALA

"Gipuzkoako txapelketa irabaztea gustatuko litzaidake"

— Espero zenituen lortutako emaitzak?

— Ez, irailean hasi nintzen entrenatzen eta. Txapelketan parte hartzen otsailean hasi nintzen.

— Lasterketa motzak ala luzeak?

— Motzak nahiago. 150 m.koak ere egiten ditut, baina zailagoak dira. 150 m. hesitan ere egin nuen, eta Gipuzkoako txapelketarako sailkatu nintzen, baina gero ez nuen parte hartu.

— Nola izan zan lehen txapelketa eguna?

— Tolosan izan zen. Aurreko gauean nahiko urduri nengoen eta ia ez nuen lorik egin. Lasterketa egunean nahiko ondo ibili nintzen.

— Non gustatu zaizu gehien lasterka aritzea?

— Tolosan, Eibarren, Elgoibarren eta Anoetan izan naiz. Eibarkoak dira pistarik politenak.

— Eta Arrasaten non entrenatzen duzue?

— Berotzea Uriben egiten dugu. Hantxe marrak markatuta ditugu eta ahal duguna egiten dugu. Ostiralean Anoetan entrenatzen dut, besteek txapelketaren bat izaten dutenean.

— Zersari irabaztea gustatuko litzaiduke?

— Gipuzkoako txapelketa, laugarren izan nintzen eta. Euskadiko txapelketa ere bai, noski, baina hori zailagoa da.



ATLETISMOA Eskoriatza- Arrasate



Isaac Kiprano keniatarrak irabazi zuen Eskoriatza-Arrasate herri krosaren VI. edizioa. Eguerdiko 12:00etan eta euripean eman zitzaion hasiera lasterketari. 8,5 km.ko ibilbidea 23'56" tan egin zuen keniatarrak. Bigarren Txomin Martin zornotzarra izan zen 10"ra. Herriko lehenengoaren saria Mentxakak lortu zuen.

Emakumeetan Rosi Talavera izan zen nagusi. Hendaiarrak, Arrasate-Oñati herri krolean ere lehen tokia lortu zuen.

Bestalde, eta Arrasate Kirolak Atletiko taldeari dago-kionez, veteranoen Espainiako txapelketan Mari Jose Gilek urrezko domina lortu zuen. Gilek 5.000 m.ko lasterketan hartu zuen parte. Fernando Nogales eta Ibai Jurado haur mailako Espainiako erkidegoen arteko txapelketan izan ziren. Ferrolen. Nogales 5. izan zen 1.000 m.tan. Jurado txandakako proban aritu zen, euskal ordezkariaren beste hiru kirolarirekin. Euskaldunak hirugarren tokian gelditu ziren


FUTBOLA Gipuzkoako txapeldun



Gaspe mailako mondragoetarrek Gipuzkoako kopa irabazi zuten. Joan den larunbatean Orion izan ziren Hernaniren aurka jokatzen. Arrasatearrak euren taldeko lehenengo tokian sailkatu ziren eta Hernanikoek ere horixe lortu zuten, euren taldean. Hori dela eta, bien arteko norgehiagokak erabaki zuten Gipuzkoako txapelduna. Arrasatearrak 1 eta 2ko garai-

pena lortu zuten Orion jokatutako norgehiagokan. Orain denboraldian zehar lortutako guztia ospatzea baino ez zaie gelditzen gaspe mailako futbol taldekoiei.

TXIRRINDULARITZA San Joan- Eroski saria



59. aldiz, jaietako txirrindulari proba jokatuko da asteburu honetan. Aurten, ekainaren 14ra pasatu dute San Joan-Eroski Sari Nagusia izeneko proba. Elite zein 23 urte azpiko txirrindularien lasterketa honek 120 km. izango ditu eta bigarren mailako bi mendate, Asentzio, Elgetan, eta Gatzaga.

Orain arte jaietan egin izan da lasterketa hau, baina trafikoarekin eta astean zehar izaten diren errepedeko arazoak saihesteko asmotan aldatu dute eguna. Ekainaren 25ean jokatuko da, beraz, eta asteburuan izanda gainera, parte hartze handiagoa izango dela uste dute Arrasateko Txirrindulari Elkartearen kideek. Euskal Herriko beste talde askorekin batera arituko dira Born Jay taldekoak ere. Hauekin batera, egun Olarra taldean aritzen den Aperribaik ere parte hartzea espero dute antolatzaileek. Lasterketa goizeko 09:30etan hasiko da Garibai kalean. Helmugaratzea eguerdiko 12:30ak aldera aurreikusi dute.

Bestalde, III. Pedro Guenetxea memorialela jokatuko den larunbatean Aretxabaletan. 2. mailako haurren txirrindulari proba Ander Zulaika nutrikuarrak irabazi zuen. JMA taldekoak ere han izan ziren. Hala ere, Iker Bernalek, Imanol Solisek eta Josu Beitiak ez zuten egun ona izan eta, proba bukatu zuten arren, tropelean sartu ziren.

Urbeltzen Dantza Antzerkia



Kondharria

Ipuin eta Jauzi

**Ekainak 20, larunbata
22:30etan**

Amaia antzokian

Sarrera: 1.500 pta (Gazte txartelarekin: 1.000 pta)

Sarrerak aldeztu aurretik salgai ekainaren 15etik aurrera, antzokiko takilan. Orduetgia: 18:00 - 20:00



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila ■

Ezagutzen al dituzu Almenek eskaintzen dituen goi mailako ziklo hezitzaileak?

98/99

IRUDI PERTSONALAREN AHOLKULARITZA

MODULUAK (IRAKASGAIAK):

- Lan zentruetan eginiko prestakuntza (praktikak)
- Lan prestakuntza eta orientazioa
- Lan ingurunearekiko harremanak
- Enpresa txikietako administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea
- Edertasunari buruzko aholkularitza
- Norberaren apainketarako teknikak
- Jazteko estilismoa
- Protokoloa eta gizarte erabilerak
- Irudi pertsonala eta komunikazioa

BERRIA



GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (TAFYD)

MODULUAK (IRAKASGAIAK):

- Lan zentruetan eginiko prestakuntza (praktikak)
- Lan prestakuntza eta orientazioa
- Aisialdia antolatzeako kirol eta jolas ekintzak
- Bakarkako, taldeko eta aparatuekin eginiko kirol jarduerak
- Biologiako hastapenak eta prestakuntza fisikoaren oinarriak
- Aisialdirako eta giza hezkuntzarako enpresa txiki baten antolaketa eta kudeaketa
- Lehen laguntzak eta uretako sorospena
- Talde animazioa eta dinamika
- Kirol jardueretarako metodologia didaktikoa
- Pertsona ezinduentzako jarduera fisikoak



ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (KIMIKA FAMILIAKOA)

MODULUAK (IRAKASGAIAK):

- Lan zentruetan eginiko prestakuntza (400 ordu)
- Lan prestakuntza eta orientazioa
- Lan ingurunearekiko harremanak
- Laborategiko antolaketa eta kudeaketa
- Entseiu fisikoak
- Tresneria eta analisi kimikoak
- Analisi mikrobiologikoa
- Segurtasuna eta ingurune kimikoa laborategian
- Teknika analitiko integratuak
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza



IRAUPENA

2.000 ordu (2 ikasturte)

AURRE INSKRIPZIOA

Ekainaren 16tik 19ra

MATRIKULA

Uztailaren 20tik 23ra

Irailaren 18tik 21era



ALMEN IKASTOLA

Torrebaso z/g
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 - 71 49 07
Faxa: 943 - 71 41 08
e-mail: almen@ikastola.net

Mondragon hotela 18an irekiko da

Datorren ekainaren 18an, arratsaldeko 19:00etan, Mondragon Hotelak ateak irekiko ditu. Ana Bujanda hoteleko zuzendariak adierazi duen moduan, hotel honek Arrasaten zegoen eskasia bat beteko du. Aurretik egin zuten merkatu azterketak erakutsi zien Mondragoen zegoen hotelak —Arrasate Hotela— ez zuela asetzen hemen zegoen eskaria. Horrek bultzatu ditu hemengo hainbat enpresak eta erakundek egitasmo

hau aurrera ateratzera.

Union Cerraierako bulegoak zeuzkan etxearen zaharberritze lanak 97ko irailean hasi ziren. Eraikuntzaren erostea, zaharberritzea eta hornitzea 400 eta 500 milioi pta tartean kostatu da. Hotel zerbitzuez gain, ezkontzak eta eguneko bazkariak eskainiko dira. Baita enpresei begira sortutako zerbitzuak: konbentzioak, bilerrak, aurkezpenak... Horretarako jangela neurri berdinetan zati daiteke.

Mondragon Hotelak 20 langile izango ditu.

Prezioak ere aldatu egingo dira, kontuan izanda eskariak laneguetarako edo asteburuetarako diren, enpresa zerbitzuak eskaintzen diren edo ez.

Donostiako Lajen Comunicacion enpresak egin dizkie irudi korporatiboa eta publizitate kanpaina. Koloretan egindako esku orriak banatu dituzte Deba Garaian eta Behean. Baita Elorrioren ere. Hilaren 19an lanean hasiko da.



Euroa

Noiz hasiko naiz euroa erabiltzen nire banku edo aurrezki kutxarekin?

1999ko urtarrilaren 1aren ostean euroa oharrak egiteko edo agirietan erabiliko da, baina txanponak eta billeteak hiru urte beranduago hasiko dira batetik bestera. Gehienok, beraz, ez dugu, 2002ko urtarrilera arte behintzat, konturik eurotan zabaltzeko premiarik izango, nahiz eta horrela gura izanez gero, hiru urte lehenago egin ahal izan. 2002ko urtarriean pezetatan dauden kontu korrente eta aurrezki libreta guztiak eurotan jarriko dira.

Euro baten balioa

167,1 pta



Dantza Taldea
Tel.: 943 - 79 34 62

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Ekainak 21



Etxean haurrak bazkaltzen izan nahi badituzu, ekainaren 19a baino lehen utz ezazu beheko txartela AEDn edo Hire liburudendan. Eskerrik asko!

Izen-deiturak
Helbidea Telefonoa:
Zenbat haur nahi dituzu?

ANTONIO PALACIOS (ARRASATEKO PP-KO ZINEGOTZIA)

“Gizarte itxia eta iluna da”

Gasteizen jaioa, 31 urte ditu eta orain bederatzita hilabete ezkondu zen. Enpresa ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta merkataritza lanetan aritu izan da Arabako Partidu Popularreko kudeatzaile izan aurretik. Antonio Palacios da, PPko zinegotzia Arrasateko Udalean.

— Noiz sartu zinen politikan?

— 1987an, hemezortzi urte nituela, Alianza Popularren afiliatu nintzen. HBko edozein bezain euskaldun sentitzen naiz. Baina horrezaz gain, zenbait baloreren alde lan egin nahi nuen: familia, lana, askatasuna, liberalismoa eta demokrazia.

— Zinegotzi izan aurretik zer harreman zenuen Arrasatearekin?

— Egia esan, ia ezer ez. Ez nuen ez familiarik ez bestelako loturarik.

— Zer helbururekin aurkeztu zinen zinegotzi?

— Ez zen helburu bat, baizik eta nire alderdiarekin hartu nuen konpromisoa. Izan ere, Gregorio Ordoñeizen hilketaren ostean, ez zegoen nor aurkeztu hemen. Bagenekien botoak bagenituela, baina hautagaririk ez.

— Udaletxean gutxi agertzen omen zara: batzordeetan, eta.

— Ni ez naiz hemengoa eta ez dut ondo ezagutzen hemengo errealitatea.

Ezin dut, beraz, parte hartu eza gutzen ez ditudan izenak, tokiak, etab. aipatzen diren batzorde batean. Bestetik, zinegotzi bakarra dugunez, ezin naiz toki guztietara iritsi. Gainera, eta ez dut inor mindu nahi, ez dut uste zinegotzian zere-

gina denik teknikoena lana gainbegiratzea, udal honetan egiten den bezala.


— Zeintzuk dira Arrasateko dituen arazorik larrienak?

— Hirigintzari dagokionez, hau ez da Gasteiz, baina jendeak ingurune polita du hemen bizitzeko. Hala ere, gizarte itxia eta iluna da, hemengoa. Oraindik ere beldurra dago jendearekin hitz egiteko. Akaso hobe daiteke hirugarren adinekoei eskaintzen zaien zerbitzua. Baita kirolaren inguruko gaia ere.

— Arrasateko alkate izango bazina, zer egingo zenuke?

— Hemen soluzio majikorik ez dago. Edozein sar-

“Ez dut uste zinegotzian zeregina denik teknikoena lana gainbegiratzea, udal honetan egiten den bezala”



hemengoa, beldurra dago”

tzen dela alkate, aurrekontuen %70 adjudikatuta daude, egin aurretik. Komunikabideek badute, hala ere, zer hobetu: Eibar-Gasteiz autobideak, Lastertasun Handiko Trenak eta industria politika egokiak osatu egingo lukete gaur egungo Arrasate.

— **Euskaraz ikasteko asmorik bai?**

— Nire anaia bat euskara irakaslea da eta niri ere gus-tatuko litzaidake ikastea. Uzailean hasiko naiz ikasten, baina badakit denbora gutxi geratzen zaidala horretarako.

— **Kalean zabiltzanean beldur zara?**

— Inolaz ere ez. Oso despistatua eta arduragabea naiz kontu horretan eta ez naiz beldurra sentitzera iritsi. Migel Angel Blancoren hilketaren ondoren, zentsura botoa aurkeztu zenean, berriz, garai gorriragoa izan zen.

— **Atentatu bat izateko aukerak asko aldatu du zure bizitza?**

— Nik ez dut bizimodua aldatu. Nire segurtasunaz arduratzen direnek aldarzten didate. Goizetik gauera bitartean bizkarzain bat jarri didate, ertzaina. Oso profesional onak dira eta ondo konpontzen naiz eurekin.

— **Zer iritzi duzu Bartolin kasuaz?**

— Min handia egin digu. Hedabideek PPko zinegotzieren inguruan eragindako gehiegizko presioaren ondorioa izan da. Euskal Herriko PPko zine-

gotzia izan balitz, ulertuko nukeen. Protagonismoa bilatzeko beste modu bat izan da.

— **Arrasaten hainbat familia daude seme-alabaren bat espetxean dutenak eta gehienak oso urruti hemendik.**

— Gurasoak gurasoak dira eta ulertzen dut ahal dutena egitea beren seme-alaben alde, nahiz eta hauek lapurrak edo hiltzaileak izan. Nik ere berdin egingo nuke. Alde horretatik, nire errespetu osoa merezi dute. Nik, dena dela, espetxeratuen ahotsa entzun nahiko nuke sakabanaketaren inguruan.

Gurasoak kexatu egiten dira, baina udal honek diru laguntzak ematen dizkie, gainerako presoen gurasoei bezala, eta PP inoiz ez da horren kontra jarri.

— **Zein izango litzateke Euskal Herria baketzeko proposamena?**

— Okerreko hitzak erabiltzen ari dira: negozioazioa, esate baterako. Bi pertsonak negoziatzea ez da zerbaitetan amore emateko prest daudenean. Ajuria Eneko Itunak esaten du negoziatzeko aukera ireki litekeela ETAK armak uzten dituenean. Konponbidea etorriko litzateke komunean ditugun arloak indartzeko. Zeintzuk diren? Denok sentitzen gara euskaldun eta gure herriarentzako onena desiatzen dugu. Horratx. Gertatzen dena da eurek armen bidez defendatzen dutela hori eta guk demokrazia erabiliz. Hor dago aldea. ■

“Okerreko hitzak erabiltzen ari dira Euskal Herriko arazoa konpontzeko: negoziazioa, esate baterako”

**ASESORIA
ARRASATE**

- Juridikoa
- Fiskala
- Laborala
- Zurich aseguruak
- BANKINTER

Erdiko kalea, 32 - 1. I
ARRASATE
Tel.: 943 - 79 01 47 • Faxa: 943 - 79 73 00



**BAZTER-ALDE
J A T E T X E A**

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58

aste gazte

IKASKETAK

• Goi mailako lanbide-heziketako zikloak: 98-99 ikasurtean ikasketa hauek burutzeko asmorik baduzu, ekainaren 16tik 19ra bitartean duzu epea aurreinskripzioa egiteko.

BEKAK

• Leonardo programak, atzerriko enpresetan lan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urtea edo ikasketak bukatu berriak dituzten pertsonentzat, berr ere lan esperientziarik gabekoak. Izena emateko epea: uztailak 30.

LANA

• Zumarragako Udalak, Kultura eta Gazteria teknikaria behar du. Epea: ekainak 17.

• Berriozargo Udalak, arkitektoa behar du. Epea: ekainak 18.

• Etxarri-Aranatzeko Udalako, kultur koordinatzailea behar da. Epea: ekainak 22.

IKASTAROKAK

• MCC eta Iraunkorrek 400 orduko ikastaroa antolatu dute automata programagarrien inguruan, mantentzen teknikerientzat. LH II ikasketak dituzten langabeek zuzenduta.


LEHIAKETAK

• Irun Hiria XXIX. Literatura Sariak, olerkia, eleberria eta saiakera alorrean, euskaraz nahiz gaztelaniaz idatziz. Epea: uztailak 15.

• Astigarragako Udalak, urteroko argazki lehiaketa antolatu du; zuri beltzean edo koloretan eta gai librean. Epea: azaroaren 27an.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Komiki ez sexisten lehiaketa



Sexismoaren aurkako komiki lehiaketa antolatu da.

Telebistan, zinean, kalean, eguneroko joan-etorrietan... oraindik ere, gizonen eta emakumeen artean ez dugu ekitatea edo zuzentasuna lortu. Gauregun ere, berdintasuna eskatu beharrean gaude.

Gizartearen arazo hau kontuan izanda, eta arazoaren aurrean konponbideak jarri beharra dagoelako usteaz, Arrasateko Udalak eta Emakume Sailak, Komiki Ez Sexisten Lehenengo Lehiaketa antolatu dute.

Maite Barreñak, Udaleko Emakume Saileko teknikariak, lehiaketaren beharra zein den azaltzen du: "gizarte sexista batean bizi gara. Badirudi beste garai batzuk bizi ditugula, baina egia da gauzak ez direla aldatu eta gazteriak ere por-

taera eta pentsamolde sexistak dituela oraindik ere". Horrela bada, jende gaztearen artean gogo berdintasuna bultzatu nahi da.

Arrasateko Udalak, Emakume Sailaren bidez eta Gazteria eta Euskara sailen laguntzarekin, lehiaketa deitu du lehenengo aldiz.

Gaia librea izango da, norberak nahi duena marraztu eta idatzi ahal izango du. Marrazkiekin eta gazteei zuzendutako hizkuntzaren bidez, pentsamolde bat helarazi nahi da. Baldintza bakarra: gaia sexismoaren aurkakoa izatea.

Lanak uztailaren 13a baino lehenago aurkeztu beharko dira, Emakume Sailaren Bulegoan, Arrasateko udaletxean.

Aurkeztutako lanen artean batzuk aukeratu eta komiki aldazkari bat aterako da. Aldizkaria ikaste-txeetan eta gazteen artean banatuko dute. Maite Barreñak, aldizkaria argitaratzea garrantzitsua dela aipatzen du: "horrela ikasleek ikusiko dute hizkuntza ez sexistak duen garrantzia".

Aurtengoa lehen aldia bada ere, Emakume Sailetik lehiaketa hau ohitura bihurtzeko asmoa erakutsi dute. Lehiaketa eta aldizkaria, baliagarriak ikusten dituzte duten asmoa lortzeko. Horregatik, etorkizunera begira urterokoa bilakatuko da ziurrenik Komiki Ez Sexisten Lehiaketa. Hori bai, honen beharrik ez den egunera arte.

OSKAR BERRETEAGA, ASA ELKARTEKO LEHENDAKARIA

“Argazkilaritza artea da, literatura edo zinea diren moduan”

Hamar urte dira dagoeneko argazki zale-tasunak bultzaturik, lagun talde batek ASA Elkarte sortu zuena.

Igande honetarako “Argazki rallya” antolatu dute. Nahi duen guztiak parte har dezake. ASA elkartera joan, argazki karretea hartu eta Arrasateko txoko ezberdinak jaso beharko dira kamerarekin.

— Zertarako sortu zen ASA taldea?

— Herrian argazkilaritza bultzatzeko asmoz eratu zen ASA. Guk argazkilaritza artea dela uste dugu. Eta gustatuko litzaiguke ideia hori Arrasaten indartzea. Horretarako hainbat ekintza antolatzen ditugu: erakusketak, ikastaroak, argazki rallyak... Dena argazki-gintzari lotuta.

— Zer da argazki bat ateratzea?


— Argiarekin pintatzea da. Argia espresio bide edo ardatz moduan hartuz, bizitzaren alde ezberdinak adierazi nahi ditugu. Gero, norberak bizitza modu batean ikusiko du, eta horrela jasoko du bere erretratuetan. Baina beti argia erabiliz.

— Argazkilaritza artea da, beraz?

— Jakina! Literatura, zinea edo pintura artea diren moduan, argazkilaritza ere bai. Argazkiak artea ez direla pentsatzeko joera dago gizartean. Asko jota, bigarren mailako artea dela pentsatzen da. Konparazio bidegabeak egiten dira. Eta ez da horrela. Argazkiak beste edozein arte adierazpen bezalakoak dira.

— Nor da, edo nor izan daiteke, ASA taldeko partaidea?

— Argazkilaritza gogoko duen edonor. ASA taldea argazkiak gogoko ditugunok osatzen dugu. Ez gara profesionalak, zaleak baizik. Norbaitek interesa balu, Erguin kalean dugun egoitzara joan daiteke. Urteroko



bazkide saria ordiantzen da. Gero, ASA taldeak dituen bide guztiak erabil daitezke.

Azkenean, zaletasun jakin batek elkartzen gaituen lagun taldea gara. Sarri gure lanak kritikatzeko eta komentatzeko elkartzen gara.

— Ilandeko argazki rallya zer izango da?

— Parte hartu nahi duen edonori zabal-dutako ekitaldia da. ASAk argazki karretek banatuko ditu, eta partehartzaileek Arrasateko txoko ezberdinak erretratatu beharko dituzte. Gero, aurkeztutako lanekin erakusketa bat egiteko asmoa dugu.

— Nolakoa da Arrasateko argazkilarien maila?

— Argazkilaria onak daude, maila bado, baina lotsatiak dira. Mondragoeko argazkilariak ez dira euren argazkiak erakustera ausartzen. ASA taldean erakusketak egiteko ohitura sortzea gustatuko litzaiguke. Aurtengo erronka bat hori da. Gure argazkiekin erakusketak egiten hastea.

“Argazkiak ateratzea argiarekin pintatzea da. Argia ardatz moduan erabiliz, norberak nahi duena sortzea”

UDA KO Ikastaro Intentsiboak

98

OINARRIZKO OFIMATIKA
(Multimedia Sisteman ematen dira)

PROGRAMAZIO-RAKO
INFORMATIKA

INTERNET

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA PYMEetan

GIZA BALIABIDEEN
ADMINISTRAZIOA

MEKANOGRAFIA
ORDENAGAILUZ

MICROSOFT PROJECT

FOTOKONPOSIZIOA

KOMUNIKAZIOA ETA
SARE LOKALAK

INFORMATIKA EKIPOEN
KONPONKETA ETA ERAKETA

INGENIARITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

abuztuan ere
prestatzen da

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1º
Arrasate

Tel.: 79 35 33*-79 32 16

Fax: 79 06 28

e-mail: bastida@tsai.es

• Ekonomiako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 77 05 25.

• Frantseseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 79 79 63. Deitu arratsalde. Igor.

• Etxean eskola partikularrak hartuko nituzke, BTT 2. mailako elektroteknia, matematikak, ingelesa eta gaztelania. Tel.: 943 - 79 34 53

MOTORRA

23. Saldu

• Erremolke eta kanpadenda salgai. Alpen-kreuzer Allure modelokoa. Nahiko berria. Tel.: 943 - 79 37 60.

• BI - BF matrikuladun autoa salgai. 110.000 km. ditu eta dieselduna da. Tel.: 943 - 76 09 12.

• Yamaha TZR 80 RR salgai. 17.000 km. VI - 0 matrikula. Tel.: 943 - 79 76 64.

• Lau pertsonarentzako kanpin erremolke salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldia dauzka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 79 49 28.

• Lekuz aldatu behar dudala eta, autoa saltzeko presa dut. Ford Escort L. Tel.: 943 - 71 53 00.

• Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 - 76 21 70/943 - 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.

• Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 - 79 80 44 Lutxi.

• Karabana tolesgarria salgai. Tel.: 943 - 79 52 41.

DENETARIK

26. Saldu

• Marrazteko mahaia salgai. Erabili gabea. Neurriak: 132x93 zm. Prezio erdian. Tel.: 943 - 79 33 17. Gaueko 21:00etatik aurrera.

• Sukaldean erabiltzeko etxeko tresna elektriko erabiliak salgai. Oso prezio onean. Tel.: 943 - 79 13 26.

• Correoseko lehiaketetareko gai zerrenda salgai. MAD akademiakoa. Tel.: 943 - 79 60 81.

• Lau laguntzako lekua duen denda erremolke salgai. Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tel.: 943 - 71 52 24. 20:00etatik aurrera.

• Errepideko bizikleta saldu nahi dut. Tel.: 943 - 79 31 40.

• Maxi-cosia salgai 17.000 pta.tan (hamaka + txasixa = paseorako haur kotxea, aterkia daukan aulkia). Tel.: 943 - 79 41 31.

• Jamsterra salgai, 200 ptatan. Tel.: 943 - 77 17 82.

• Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezau-garriak: Tuberia Columbus SLX Pinarrello JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso merkea. Tel.: 943 - 71 42 32. Iñigo.

27. Erosi

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosiko nuke. Tel.: 943 - 78 34 64. Migel Angel.

• Disko txikiak eta handiak erosten ditut. Tel.: 943 - 52 65 77.

• 2m.ko kaja duen erremolke erosiko nuke. Tel.: 943-73 19 60. Joseba. 21:00etatik 22:00etara.

31. Galdu

• Maiatzaren 24an puntuzko jertsei urdina galdu nuen Zaldibarren. Inork aurkitu badu, dei egin dezala, mese-dez, 943 - 14 06 26 telefonora. Aser.

• Maiatzaren 30ean eta 31n urrezko eskumuturrekoa galdu nuen. Beta C inzialak daramatza eta 1991ko San Valentin-eko data. Aurkituz gero, deitu mese-dez ondoko telefonora: 943 - 79 07 42. Blanki.

32. Aurkitu

• Ostiralean haur kotxe baten manta arrosa aurkitu nuen Biteri Etorbidetan. Tel.: 943 - 77 11 68.

HARREMANAK

35. Harremanak

• Kaixo, Xabi naiz eta nahi nuke 33 urtetik beherako mutilekin harremanak izan. Asmo bera baduzu, idatzi posta kutxa honetara: 91 zenb. Oñati. 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhurtasuna.

“GAZTEAK ETA KOMUNIKAZIOA” IX. ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak
- B) 19-35 urte bitarteko edozein.

SARIAK

- A) kategoria 1) 20.000 pta
- 2) 15.000 pta
- B) kategoria
 - zuribeltzean 1) 50.000 pta.
 - 2) 35.000 pta.
 - koloretan 1) 50.000 pta.
 - 2) 35.000 pta.


Emakume Sailaren sari berezia: 40.000 pta.

Lanak aurkezteko epea: URRIAK 9



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■
Emakume Saila ■



Juan Jesus Huelva



Garraioa dohain

San Andres, Musakola eta Erguin Herri Eskolek zure erosotasunean pentsatuz, zerbitzu berriak eskaintzen dizkizute:

zerbitzu honengatik txakur handirik ere ordaindu beharrik izango, dohainik izango da eta.

GARRAIOA

Egunero-egunero, goizez, eguerdiz eta arratsaldez, Herri Eskolek jarriko duten autobusak ume guztiak jasoko ditu eta etxera bueltatuko, eta gurasoek ez dute

Jangela zerbitzua

Informa zaitez!!



**ERGUIN
HERRI ESKOLA**
Udala bidea, z/g
Tel.: 943 79 77 74
Faxa: 943 79 01 52



**MUSAKOLAKO
HERRI ESKOLA**
Elkano, 10
Tel.: 943 79 04 49
Faxa: 943 79 04 49



**SAN ANDRES
HERRI ESKOLA**
Alfontso VIII. 1
Tel.: 943 79 00 44
Faxa: 943 79 00 44

Jai Larai, haurren saioa Arrasate Irratian

Arrasateko hurrek larunbat goiza primerako lagunekin igarotzeko aukera dute. Laguntxo hauek ipuinak kontatu, asmakizunak esan eta lehiaketan sari apartak banatzen dizkiete. Arrasate Irratiako Jai Larai saioan aurkituko dituzte hurrek Belen Aranbarri eta Garbiñe Perez.

Irratiko saiorik zaharretarikoa da, eta arrakasta handien duenatariko bat. Zein da sekretua? Belen Aranbarri saioko esatariarekin egin dugu elkarrizketa.



Jai Larai saioan, hurrek euren txokoa dute larunbatero.

— **Nolakoa da Jai Larai saioa?**

— 2 eta 12 urteko haurrenzat saioa da. Zerbait alaiaren ahalegintzen gara, haurrak gustura gera daitezten. Ipuinak kontatzen ditugu, asmakizunak egin, lehiaketa

ere badugu eta Umezaintzako ikasleek egiten duten saioa.

— **Hurrek parte hartzen dute?**

— Bai. Umeek ez dute lotsarik. Astero sei dei jasotzen ditugu, eta asko hitz egi-

ten dute telefonoz.

— **Pozik zaudete saioarekin?**

— Bai. Hurrekiko harremana oso polita da. Gainera, irratsaioa gogoko dutela jakitea poztasun handia da.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 13	ASTELEHENA, 15	ASTEARTEA, 16	ASTEAZKENA, 17	OSTEGUNA, 18	OSTIRALA, 19
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarriaren errepika.	13:30 Astebete. (Errepika)	13:30 Mondrasport. (Errepika)	13:30 Lotsa Barik. (Errepika)	13:30 Munduari bueltak. (Errepika)	13:30 Kukaratxa Motel. Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.
13:30 Kukaratxa motel	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:15 Kukaratxa Motel. Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin. Aste honetan finalak jokatuko dira.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport. Itxaro Zubillaga. Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak... eta Arrasate Kirolak lehiaketa.	21:30 Lotsa Barik. Maier Urangak aurkezten duen magazinea.	21:00 Munduari bueltak. Elene Alberdik, Jose Luis Urrutia mondragoetarrek Argentinara egindako bidaia hurbilduko digu.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Astebete
14:45 Alkatearekin berbetan. Jose Mari Loiti alkateak, kazetari eta herritarren galderei erantzuten dien saioa.				21:30 Kukaratxa Motel..	

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian.** (albistegia)
 9:30 **Musika**
 10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarriekin.
 11:00-12:00 **Zoroklasikoak.** Musika klasikoa, Eugenio Etxebe, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
 12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUARDIZ

9:00 **Egunon Arrasate.** (albistegia)
 9:30-11:00 **Goizoro.**
 11:00-13:00 Gaueko programen errepikapena.
 13:00-14:00 **Goizak gaur.** (Euskadi Irratia).
 14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
 21:00-22:00 **Jokoz kanpo.** Kirolak, Gorka Etxabe, Belen Carenas eta Rafa Mungiaekin.
 22:00-23:00 **Soloik Solo.**

Asteartea

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
 21:00-22:00 **Hitza ta Ekintza.**
 22:00-23:00 **Euskal Festa.** Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
 21:00-22:00 **Musika**
 22:00-23:00 **KK2A.**

Osteguna

20:30-21:00 **Iluntzean berriketan.**
 21:00-22:00 **Kaleko Hautsak astinduz.**
 22:00-23:00 **Kutrelax.** Belen Carenas eta Kaitekin Allenderekin.

Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest.**
 21:00-22:00 **Music Box.**
 22:00-23:00 **Txerrendantza**
 23:00-24:00 **Draxtor.** Makina musika.



Nolakoa den bizitza! Txikitán egiten diren adiskideak bizi guztirako izango direla uste izaten dugu, baina gero bizitzak buelta asko ematen ditu. Gaurko protagonistak hamabi urte zituztela harrapatu

zituen argazki paperean Juan Luis Calvo San Viatorreko maisuak. Harrezkero hogeitau urte igaro dira. San Viatorren ikasketak bukatu eta lagun bakoitzak bere bidea hartu zuen. Iñaki Arregi, lehena ezkerretik hasita, gaur egun Oñatin bizi da. Hurrengoa, Iñaki Arana, Arrasaten dago.

Tito Arkauz, ordea, Donostiara joan eta han geratu zen. Juan Luis Azkarate, Gotzon Agirre eta Juan Jose Garmendia *Yanyo*, herrian bizi dira oraindik. Josetxu Garmendia New Yorken bizi izan zen eta oraindik atzerrian segitzen du. Felix Gonzalezek Bergaran du etxea. Javier Casado Arrasaten bizi

da eta Jose Ignacio Españollek herritik kanpo egin du bizitza.

Argazkia: Juan Luis Calvo
Berriemalea: Juan Luis Azkarate

UDARAKO IKASTAROAK (UZTAILA - ABUZTUA - IRAILA)

INGENIARITZA

- Kalkulua I eta II • Fisika I eta II • Termodinamika
- Informatika • Algebra

INFORMATIKA

- Ofimatika ikastaro konbinatuak eta monografikoak (Windows, Word, Excel, Access)
- Internet
- Ordenadore bat ikasle bakoitzarentzat

ESKOLA PARTIKULARRAK

- OHO • EII • BBB • LH • BT
- UBI

Ikasketen egiaztatzea edo diploma

MEKANOGRAFIA

- Ordenadore bidez
- Teklatuari begiratu gabe
- Minutuko 360 pultsazio

GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERIAN
(King's College)



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 - 79 56 11
ARRASATE

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 943 - 79 48 77 • ARRASATE

Zu zeu izan zaitez!

Ez inori jaramonik egin, eta zaren modukoa izan zaitez.

MAHAI INGURUA

GAIA

ANOREXIA ETA BULIMIA

PARTEHARTZAILEAK

Garbiñe Agirre

ACABEko partaidea

Teresa Brouard

Psikiatra

Teresa Agorreta

Nutrizionista

Ekainaren 15ean (astelehena)

Arratsaldeko 19:30etan

Monterron Kultura Etxean



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■

Mondeo

**Lua errak
prezio-kalitatean**



Norbaitek Mondeo bat daukanean, 4 edo 5 ateduna nahiz wagon delakoa, edozein ibilbide egiten zaito laburregia. Izan ere, gidatzeak sortzen duen zirrarez benetan gozatzen dutenek, Mondeo batekin inoiz baino gehiago gozatuko baitute errepidaz. Duen zehaztasunagatik, leuntasunagatik, egonkortasun berebizikoagatik, galga ematerakoan duen erantzunagatik, isiltasunagatik, bukatze mailagatik eta, noski, bere itxura erakargarriagatik. Mondeo bat inoiz frogatu ez duten horietakoa bazara, oraintxe duzu bat gidatzeke aukera.

hitzejin dezaun
902 442 442
www.ford.es

RS 24V 170CV 3.500.000 pta

GHIA 16V 130CV 2.800.000 pta

GHIA TD 90CV 2.700.000 pta

CLX 16V 115CV/TD 90CV 2.350.000 pta

**DEBA GARAIKO
KONTZESIONARIO
OFIZIALA**

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44

